

# ATERPEAN



ARTISTAK EGOITZAN  
ARTISTES EN RESIDENCE  
ARTISTAS EN RESIDENCIA

## AUDIZIO TAILERRA ASIER ZABALETA / ERTZA (DONOSTIA)

Baiona, 2008ko Uztailak 1,2 eta 3  
MAISON DES ASSOCIATIONS

Sorkuntza-tailer hau ATERPEAN programaren barne dago.  
ATERPEAN artista egoiliarren programa da, - DANTZA HIRIAN - Mugaren Bi Alde Dantza Jaialdia hiri paisaietan ekimenak sortua.



DANTZA HIRIAN ekimenak hiriguneetan dantza garaikidea sortzea, ikertzea eta zabaltzea sustatuko du ATERPEAN programaren bidez. Urte osoa hartzen duen programa hori mugaz gaindikoa da, eta artista egoiliarrei dago zuzenduta.

DANTZA HIRIAN ekimenak bi artista egoiliar hartuko ditu 2008ko uztailaren eta irailean. Programa orokorraren proiektu pilotuan hartuko dute parte 2008ko artista egoiliarrek. Esperientzia aztertu ostean, ondorio batzuk aterako dira, eta horiek aintzat hartuta egingo da lehen deialdi irekia, 2009an.

Mugaz gaindiko programa berri horren bidez, artistek, zuzkidura ekonomikoa ez ezik, lanak sortzeko eta aurkezteko espazioa ere lortuko dute. ATERPEAN Baiona-Donostia eurohirian gauzatuko da.



### ERTZA ATERPEAN PROGRAMAKO LEHEN KONPAINIA EGOILIARRA IZANGO DA

[www.ertza.com](http://www.ertza.com)

Donostiako ARTELEKUN prozesuari hasiera eman baino lehen, Asier Zabaletak sorkuntza-tailerra egingo du Baionako LA MAISON DES ASSOCIATIONS-EN, eta bertan dantzari partaideak hautatuko ditu.

Egoitzak irauten duen bitartean, dantzaren inguruko sentsibilizazio-ekintzak antolatuko dituzte; esaterako: topaketak artistekin, emankizun publikoak...

Ertzaren zuzendari eta koreografo Asier Zabaletak uztailaren egingo duen egonaldian, hiriko espazioetan dantzatzeko pieza motz bat sortuko du, «Bihar jaio nintzen» izenekoa. 2008ko Dantza Hirian jaialdian estreinatuko da.

«Bihar jaio nintzen» lanean, bat egiten duten bi begirada ageri dira. Batek iraganetik etorkizunera begiratzen du, eta besteak alderantziz. Iraganaren eta orainaren arteko zubia da. Asier Zabaletak askatu egin nahi du sarritan hermetismoari lotuta egoten den tradizioa, eta modernitateak duen eskusibitate kutsua, bien arteko ulertzea bultzatzeko. Konplexurik gabeko proiektuari ekiten saiatuko da, «zer esango dutenaren» beldurrik gabe.

Fusio-proiektua izango da. Euskal dantza tradizionala eta kaleko dantza modernoa dantza garaikidearen bidez uztartzen dituen proiektua. Hiri-paisaietan dantzatzeko proiektua izango da, tarteko ikusle bilakatuko diren oinezkoekin gertutasuna bilatuko duena.

#### > IRAUPENA

12 ordu

#### > DATAK

2008ko uztailaren 1a, 2a eta 3a

#### > ORDUTEGIA

10:30etik 14:30era

#### > PREZIOA

Doakoa

#### > IZENA EMATEA

Izena emateko fitxa ekainaren 27a baino lehen bidali behar da.

#### > TOKIAK

20 toki. Tailerrean parte hartzeko interesdun gehiago egonez gero, uztailaren 1ean aukeraketa egingo da.

#### TAILERRA: METODOLOGIA

Espazio komuna sortuko dute, partaideak lengoia berri baten sorrera-prozesuan subjektu aktibo izan daitezten. Euskal teknika tradizionala dantza garaikidearekin eta hiritarrarekin fusionatzen dituen lengoia. Diziplina ezberdinen lotura-puntuak bilatu arren, bakoitzaren ezaugarriei eutsiko diena. Pauso errazen bidez, material berria aurkitzeko ildoak finkatuko dira, eta partaideei sorrera-prozesuan esku hartzeko aukera emango zaie.

#### PARTAIDEAK

Euskal dantza tradizionala, dantza klasikoa, dantza garaikidea edota dantza hiritarra (hip hop, street jazz...) egiten duten dantzariak parte hartu ahaliko dute tailerrean.

#### TOKIA: BAIONA

La maison des Associations ([www.bayonne.fr](http://www.bayonne.fr))  
11 allée de Glain. 64100 Bayonne

Doako autobusa jarriko dute Donostiako Gipuzkoa plazan 9etan.

#### SORKUNTZA: BIHAR JAIO NINTZEN

Uztailaren 7tik 31era (Aukeratutako dantzariak)  
DONOSTIA. Arteleku ([www.arteleku.net](http://www.arteleku.net))  
Kristobaldegi 14. Loiola. 20014 DONOSTIA



Euskararen Erakunde Publikoa eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin  
Avec le soutien de l'Office Public de la Langue Basque et le Gouvernement Basque

